

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO KALEEN IZENAK

·Zuek bai jakin!: Daniel Ibarzabal ·Elkarrizketa: Estitxu Sudupe ·Izerdi patsetan:

Urolatik Superligara ·Boteprontoan: Alfonso Arratibel

Otamotz

Herri Aldizkaria

2009ko

urria

150. alea




Herri Aldizkaria
Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

altia



IKER

Ipeñarieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

FAGOR

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea


- 04 Hilabete honetako gaia**
Urretxu eta Zumarragako kaleen izenak
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Buzkantzak lehiaketara joateko ohiturarik ba al duzu?
Buzkantzak gustatzen al zaizkizu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Carlos Mediavilla
- 18 Zuek bai jakin!**
Daniel Ibarzabal
- 23 Argazki zaharra**
- 24 Elkarrizketa**
Estitxu Sudupe
- 26 Izerdi patsetan**
Urolatik Superligara
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Alfonso Arratibel



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Urretxu eta Zumarragako kaleen izenak

Urretxu eta Zumarragan makina bat kale daude: batzuek herriko seme ezagunen izenak dituzte, beste batzuek horren ezagunak ez diren semeenak, toponimoak ere badira... Baina, noizkoa da izen bakoitza? Zergatik jarri zitzaion izen hori? Galdera horiei eta beste batzuei erantzuteko, Koldo Argandoña eta Antonio Prada agirizainengana jo dugu.



Antonio Prada: “Herriko kale baten izena izan zuen lehen zumarragarra Nikolas Soraluze izan zen”

Zeintzuk dira Zumarragako kale zaharrenak?

Hasieran, ez zegoen kalerik. Baserri auzoak besterik ez zeuden: Leturia, Aranburu, Soraiz eta Elgarresta. XV. mende amaieran, berriz, lehen auzo hiritarra sortu zen: Eitzaga. Mendiak guztiei jaten eman ahal izateari utzi zioenean, ibai ertzera jaitsi ziren. Lurrik onenak ibai ertzekoak ziren, baina askotan uholdeak egoten ziren, urak geratu egiten ziren eta gaixotasunak harrapatzeko toki aproposa zen. Ura bideratzen ikasi zutenean, uholdeei aurre egiteko tresna lortu zuten eta ibai ertza toki seguruagoa bihurtu zen. Kale zaharrenak

“XVI. mende erdialdean

dagoeneko Zufiaur

kalea zegoen. Ondoren,

Kalebarren izena

hartu zuen”

Piedad, Eliz-Kale, Plaza Zaharra (egun Nafarroa plaza), Legazpiko kalea (Secundino Esnaola), Plaza Berria (Euskadi plaza), Kale Berria (Legazpi eta Soraluze) eta Zufiaur (Kalebarren) dira.

Kale hauek guztiak ez ziren batera sortuko.

XVI. mende erdialdean, dagoeneko, Zufiaur kalea zegoen. Ondoren,



Antonio Prada, Zumarragako Klara Larrañaga zuhaitzian.

Kalebarren izena hartu zuen. Kalebarren bertan zegoen etxe baten izena zen. Zufiaur kaleko 1 zenbakia zuen.

Dirudienez, garai batean toponimoak erabiltzen ziren kaleei izena emateko.

Baserri auzoetan oso ondo ikusten da izenen fenomeno: ibaiaren ondoan dagoena Leturiondo da, pixka bat gorago dagoena Leturia Barrena, gero Leturia Erdikoa, hurrengo Leturia Goikoa eta, azkenik, Leturia Gorena.

Izen guztiak ez dira halakoak, ordea. Piedad izena, adibidez, nondik dator?

Inguru hartan Santa Maria de la Piedad eliza zegoen eta horrek kaleari izena

eman zion. Garai hartan ia auzo guztiek baseliza zuten: Eitzagan San Gregorio (garai batean Santa Engrazia), Aranburun San Kristobal, Zufiaurren Santa Maria de la Piedad, Agiñagan San Martin...

Noiz hasi ziren kaleei herriko semeen izenak jartzen?

Herriko kale baten izena izan zuen lehena Nikolas Soraluze izan zen. 1884an hil zen eta berehala eman zioten bere izena kale bati. Ordura arte, Soraluze kalea Kale Berriaren zati bat izan zen. Hau Soraluze eta Legazpi kaleek eta Euskadi plazak osatzen zuten. Zergatik Kale Berria izena? Ordura arte Zumarragako kale bakarra izan

zuelako: Eitzagatik Kalebarrenera zihoa-na. Kale Berria geltokia egin zenean sortu zen: geltokia herriarekin lotzeko, Kalebarrenetik geltokira ensantxea egin behar izan zuten.

Zeintzuk izan ziren Zumarragako kale bati izena eman zioten hurrengo herriko semeak?

Soraluzeri kalea eman eta berehala, Legazpiri eman zioten. Secundino Esnaolari ere, hil eta oso gutxira eman zioten kalea.

Lehen Plaza Zaharra eta Plaza Berria aipatu dituzu.

Plaza Zaharra Nafarroa plaza da eta Berria, berriz, Euskadi izeneko. Azken hau egin zenean, lehena Zaharra izatera pasatu zen. Ondoren, Nafarroa izena eman zioten: 1936ko irailaren 21ean frankistek Zumarraga hartu zuten eta, handik urtebetera, urteurrena ospatzeko, sekulako festa antolatu zuten. Besteak beste, kale batzuen izenak aldatu zituzten: Zufiaurreri General Mola

“Izen gehien izan dituen tokia Euskadi plaza da: Plaza Zaharra, Artiz, Alfonso XIII., Errepublikaren plaza...”

eman zioten, egungo Iparragirre hiribidea Avenida del Generalísimo izan zen eta, aipatu bezala, Plaza Zaharrari, Nafarroa Plaza deitu zioten. Izan ere, nafarrek konkistatu zuten Bilbo. Hala,

Legazpin eta Beasainen ere, adibidez, badaude Nafarroa izeneko kaleak.

Zein da izen gehien izan dituen tokia?

Euskadi plaza. Hasieran Plaza Berria deitzen zioten, baina 1890ean Artiz plaza izena eman zioten. Artiz enpresaria alkattea ere bazen 1890ean. Korporazioko kideek, berari ezer esan gabe, plazari bere izena ematea proposatu zuten. Jakin zuenean Udalbatzatik atera zen eta gaintzeko korporazio kideen esku utzi zuen erabakia. Handik urte batzuetara, plazak Alfonso XIII. izena hartu zuen. Ondoren, Errepublikaren plaza izan zen. Azkenik, Plaza de España eta Euskadi plaza. Plaza Zaharrak ere hainbat izen izan ditu: Errepublika garaian Sabino de Arana Goiri izena eman zioten.

Zer nahiago duzu, toponimoak erabiltzea ala herritarren izenak ematea?

Bi joerei ondo deritzet. Anton Arbuluk, batzuetan, iritzia eskatzen zidan. Txosten bat egiten nion eta, bertan, hainbat toponimo eta herritar proposatzen nizkion. Beloki pilotalekuaren kasuan, horrekin batera, beste 100 izen proposatu nizkion.

Ba al dago, merezi arren, oraindik kalerik ez duen zumarragarrik?

Bai. Martin de Gurrutxaga, adibidez. XV. mendearen bukaeran Lazkaoko jauna hemengo nagusia zen eta herria goitik behera menperatzen zuen. Martin de Gurrutxagak protesta mugimendua gidatu zuen. Errege Katolikoei idatzi zien eta hauek ordezkari bat bidali zuten hemengo errealitatea zein zen jakiteko. Honek Zumarragako egoera txarra zela ikusi zuen eta Lazkaoko jaunari boterea kendu zioten. Agirrebengoatarrei ere kale bat emango nieke. Diru pila bat eman zuten eskola egiteko, maisua ekartzeko, herrira

ura ekartzeko, frontoia egiteko, Zelai Arizti parkea egiteko...

Izenen bat gaizki jarrita dagoela iruditzen al zaizu?

Nik Nafarroa plazari izena aldatuko nioke, konkistatzaileek jarri baitzuten izen hori. Horren ordezkari Nafarroarekin lotutako beste izen bat jarriko nuke: Zazpi Herrialdeen plaza, Merindadeen plaza... General Mola eta Generalísimo Franco kendu baziren hau ere kendu egin beharko litzateke. Dena den, sekulako buruhaustea sortuko luke: izan ere, gure etxeetara gutunak eta fakturak

“Nafarroa plazari

izena aldatuko

nioke, konkistatzaileek

jarri baitzioten

izen hori”

bidaltzen dituzten erakunde eta enpresa guztiek euren datu basean aldaketa egin beharko lukete.

Gaiztakeria bat... Zumarragak Iparragirrerri kalea eman dio, baina Urretxuk ez dio kalerik eman Legazpiri...

Beraiei galdetu beharko zaie inoiz Legazpiri kalea ematea pentsatu duten... Ea zer esaten duten.

Oharra: Gai honi buruzko informazio gehiago nahi duenak Pradaren ‘Zumarragak kaleen historia’ liburua kontsultatu dezake.

Koldo Argandoña: “Mundo Mejoren ordez Sorginzulo jartzea proposatu zieten bizilagunei, baina ez zuten onartu”

Noiz hasi ziren Urretxun kaleei herriko semeen izenak jartzen?

Gauza nahiko zaharra da: XIX. mende bukaerakoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak izendegia arautu nahi zuen eta herrialdeko Udal guztiei izendegia ordenatzeko eskatu zien. Urretxun zer erabaki zuten? Kaleei izena aldatzea. Hankaz gora jartzea. Lau kale zeuden: Goiko Kale, Beheko Kale, Calle del Retén (egun, Areizaga) eta El arrabal edo Aldiri (egungo Labeaga). Kale hau Labeaga eskoletaraino bakarrik heltzen zen. Esan bezala, kaleei izenak aldatzea erabaki zuten. Calle del Retén delakoan Baroikua edo Areizaga palazioa dagoenez, kale horri Areizaga izena ematea erabaki zuten. Sendiaren izena jarri zioten euretako batena ordez. Nire ustez asmatu egin zuten Areizagatar askok merezi baitzuten kalea ematea. Nekolaldetarrekin berbera gertatu zen.

Beheko Kaleri Iparragirre jarri zioten.

Noski. Kale nagusia zen eta herriko pertsona garrantzitsuenaren izena jarri nahi izan zioten. Iparragirre 10 urte lehenago hil zen eta, ordurako, herriko seme ospetsuena zen.

Hil zenean herritarrek ez zutela estimu handian entzun izan da beti...

Euskal Herriko kultur eragileek estatua altxatu zioten eta horrek bere irudia hobetu zuen. Lehenengoz kale baten izena pertsona bati eman zitzaion eta ez familia bati.

Zer diozu Labeaga kaleari buruz?

Herriko nesken eskola irekitzeko eta beste hainbat ekimenetarako dirua eman zuelako jarri zioten bere izena kale bati. Baina bera ez zen Urretxun jaiotakoa. Bere ama zen urretxuarra. Emakume hau Cadizera joan zen neska bezala-edo eta José Vicente Labeaga semea bertan jaio zen. Merkataria izan zen eta Kaliforniakoekin egiten zituen negozioak. Labeagak ez zuten bere diruarekin eraiki zen eskola ezagutu. Lehenago hil zen.

“Agintariek kaleei euren sokakoen izenak jartzeko joera dute, baina denborak bakoitza bere tokian jartzen du”

Eta Ipeñarrieta?

Tren geltokia sortu ondoren inguru hartan auzo bat sortu zen. Kaleari izena jarri behar zitzaion eta Urretxuk eman duen familiarik garrantzitsuenak oraindik kalerik ez zuela ikusi zuten. Hori dela eta, kale horri Ipeñarrieta izena eman zioten.

Zein izan zen Ipeñarrieta familiaren ekarpena?

Herria erosi zuten. Madrilgo gortean

diru asko irabazi zuten eta horrekin Urretxu ia osoa erosi zuten. Cristobal Ipeñarrieta egungo Pedro Solbes zen: Felipe II.-aren ekonomia ministroa izan zela esan daiteke. Kontuan izan behar da garai hartan Espainia munduko potentzia nagusia zela. Halako dirutza zuen jendeak lurretan inbertitzen zuen edo emagalduetan gastatzen zuen. Ipeñarrietak lurra erostea erabaki zuten. Bere anaiari, adibidez, baserria erosi zion. Ondoren bota egin zuten eta Ipeñarrieta jauregia eraiki zuten. Etxaburu, Irigon, Erratzu Behekoa, Deskarga, Sasieta, Kalerrotako errota eta Agiñaga erosi zituen, egun udaldegia dena eraiki zuten... Bere ondorengoek Urretxutik alde egin zuten eta administratzaile lanetan aritu ziren Madrilan.

Nekolaldetarrek eta Areizagatarrek zer egin zuten?

Areizagatarrek denetik egin zuten: batzuk apaizak izan ziren, beste batzuk militarrek, legelariak ere izan ziren... Nekolaldetarrek, berriz, erregearen goi mailako funtzionarioak izan ziren. Basoondarearen arduradunak ziren, XVII. mendean. Familia hau, jatorriz Zumarragakoa zen.

Aipatutako kaleei aspaldi jarri zitzaizkien izena, baina Urretxuko bi plaza berriak dira: Mendaraz eta Belaustegi.

Nire proposamenez jarri zitzaizkien izen horiek. Batzuetan kasu egiten didate eta beste batzuetan ez. Urretxu asko aldatu

da azken 15 urteotan. Etxe asko eraiki direnez, kale berriak sortu dira. Izenak jartzeko orduan proposamenak aurkezteko eskatu didate eta, orokorrean, kasu egin didate. Domingo de Mendiaraz eskultorea zen eta bi erretaula oso garrantzitsu egin zituen: Urretxuko parrokiakoa eta Antion zegoena. Bertako erretaula zoragarria zen, baina kendu egin zuten eta haren ordezu ukui-lu bat jarri dute. Zumarragarrei Urretxun egin zuen erretaula gustatu zitzaion eta eurentzat berbera, baina handiagoa egi-tea eskatu zioten.

Belaustegi, nor zen?

Plaza horri Juan Jose Belaustegi izena jartzea Juan Jose Arozena bizilagunak proposatu zidan. Belaustegi Udal idazkaria izan zen 40 urte inguruan eta Gerra Zibila hasi bezain pronto kargutik kendu zuten. Ez zuen gehiago idazkari lanean aritzerik izan. Arozenak sekulako haserre hartu zuen plazari Belaustegi izena jarri ziotela ikusi zuenean. Arrazoi osoa zuen: izan ere, Juan Jose Belaustegi behar zuen. Aparizio auzoa-rekin berbera gertatzen da: Jose Luis Aparizio behar luke. Luis Mari Garin behin kontu horrekin etorri zitzaidan eta arrazoia eman nion.

Zein izen gehiago proposatu dituzu?

Kalerrota, adibidez. Inguru hori beti izen horrekin ezagutu da. Izan ere, bertan errota bat zegoen eta garai hartan ez zen ohikoa errotak herri barruan egotea. Handik gertu harategia zegoen eta Zubimusu izenarekin ezagutzen zen. Horregatik eman genion plazari izen hori. Mugitegi? Jose Inazio Salaberria niregana etorri zen, zinegotzia zenean, eta industrialde bat eraiki behar zela esan zidan. Non egin

behar zen esan zidanean, bertako toponimoa erabiltzea proposatu nion: Mirutegi edo Mugitegi.

Zer diozu Matxinportaz?

Hori ere nire proposamena da. Bertan zegoen baserri baten izena da: Iparragirre kaleko azken etxea dagoen tokian zegoen. Matxinporta Martin Perez Errota izenetik dator eta XVI. mendeko toponimoa da.

Zer diozu Sorginzuloz?

Pello Gonzalez alkate ohiari Basagasti

“XX. mendera arte etxe

bakoitzak bere izena

zuen. Izen horiek

berreskuratzen saiatu

naiz, baina ez dut lortu”

kaleari Sorginzulo izena jartzea proposatu nion, baina ez zitzaion gustatu. Txosten bat egin nion: garai batean hura baso bat zela eta goran toponimo ez kristaua (Sorginzulo) eta behean kristaua (San Sebastian basiliza) zituela azaltzen nion bertan. Sorginzulo izena erabiltzea ez zen iraingarria, baina ez zitzaion gustatu. Azkenean, Gainzuri ikastetxea egiteko egin zen lur salerosketaren eskriturak eskatu zizkidaten. Inguru hura oso irregularra denez, izen asko azaltzen ziren. Horietako bat Basagasti zen, baina ez da inguru haren izena, zati baten jabearen abizena baizik.

Dena den, azkenean inguru hartako

beste kale bati Sorginzulo izena jarri zitzaion.

Handik urte batzuetara etxe gehiago egin ziren eta eskritura zaharretan Sorginzulo izena atera zen. Azkenean, izen hori erabili behar izan zen.

Eta Lilibasori buruz, zer diozu?

Toponimoa da.

Eta auzoei buruz?

Auzoak izendatzeko beste logika bat erabili da. San Martini herriko patriaren izena jarri zioten. Santa Barbara bidean dagoen auzoari, berriz, Santa Barbara jarri zioten. Mundo Mejor? Eraikitzaileak enpresaren izena jarri zion. 80ko hamarkadan, Juanito Arbizuk-eta Sorginzulo jartzea proposatu zieten bizilagunei, baina ez zuten onartu.

Kaleren bati izena aldatuko al zenioke?

Ez. Bizitzak berak aldatu behar du. Niri gustatzen ez zaizkidanek ere, dagoeneko, indarra eta esanahia hartu dute. Inixio Izagirrek eurak beti Santa Barbara ondoan bizi izan direla esan zidan, beste Santa Barbara berriagoa dela eta haiek izena aldatu beharko luketela. Izan ere, bi auzok izen bera izateak nahasketa dakar.

Zeini emango zenioke kale bat?

Ez dut esango. Agintariek euren sokakoen izenak jartzeko joera dute, baina denborak bakoitza bere tokian jartzen du. Bestalde, XX. mendera arte etxe bakoitzak bere izena zuen. Izen horiek berreskuratzen saiatu naiz, baina ez dut lortu: arkitektoek, zinegotziek eta alkateek ez didate kasurik egin. Iparragirre 26 eta 28an zegoen etxea Mari Santurunea izenarekin ezagutzen zen, adibidez. Ez da batere kostatzen atariko kristalean, zenbakiarekin batera, izena jartzea.

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



IRAKURRIENAK

1. Antolaketa aparta goizeko nahiz arratsaldeko Euskal jaialdietan.
2. Beltza zerua eta Beltzak bide bazterrean.
3. Urretxuko lurretan dauden seinaleak kentzeko eskatu dio Urretxuko Udalak Zumarragakoari.
4. Futbola eta auzo lotsa.
5. Urretxu auzitara jotzeko prest da Zumarragaren Planaren aurka.
6. Urretxuk bide judizialari ekiten badio udalen arteko harremanak 'birplanteatuko' ditu Zumarragak.
7. Jarraitu Otamotz.com, Facebook eta Twitter bidez.
8. Urretxuko Udaletik negoziatzeko eskaera berria igorri diote Zumarragakoari.
9. Hasi da Santa Barbarako jatetxea itxura hartzen.
10. Eskualdeko eskaintza turistikoarentzat irudi eta lelo bila.

AZKEN IRAGARKI LABURRAK

- Garajea salgai Iparragirre plazan. Helbidea: Iparragirre 20. Mota: estalia. Metro karratuak: 30. Prezioa: 42000 euro.
- Iparragirre kalea, guztiz berritua, 3. pisua igogailurik gabe. Prezioa: 228.000 Solairua: 3. Metro karratuak: 90. Gela kopurua: 3. 2010eko uztailean utziko genuke. Altzariak uzteko aukera ere egongo litzateke.
- Logela bila nabil Urretxu edota inguruetan. 678 64 54 28.

OTAMOTZ TELEBISTAREN AZKENAK

- Gotzon Etxeberriaren 'Eskulturak eta marrazkiak'.
- Atxiloketak salatzeko elkarretaratzea (2009-10-16).
- Aizkorri barrena ibilaldia.
- Lihoa lantzen Igartubeitin.
- Lourdes Iriondoren omenezko kantaldia.
- Aritz Lasa-Arretxe II.a pilota partidua.
- Lau t'erdikoa, atarikoa Aritz Lasarekin.
- 'Kirol-lagun onena' sari banaketa.
- Santa Barbarako lanak bide onean doaz.
- Txontxongiloak, mundu bat' erakusketa.
- 'Pintura, pagoak, buruak eta errealitatea' erakusketa.
- Kamioi batek istripua eragin du Eitzagan.
- Urola erreka gaineko zubia amaitzen.
- Txistularien emanaldia santanastasiatan.
- Karroza irabazlea, haseratik bukaeraraino.
- 'Bizi bi batuz' txirindularitza asteburua.
- Azken eguna koadrilekin.
- Kantu afaria 2009 (4 bideo).
- Euskal Jaia eguna 2009 iraila (5 bideo).
- Zezensuzkoa.
- Goitibera Lasterketa.
- Buruhandiak janzen, pregoia, txaranga... eta euria Urretxuko jaie-tan 2009.



Hitzak urteurrena ospatuko du

Goierriko Hitza egunkariak bost urte bete ditu eta **Goierritarra** aldizkariak, berriz, 20. Urteurrenak ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Ostiralean bertso saioa izango da Legazpin eta larunbatean festa Lazkaon. Gainera, aipatutako komunikabideek trikitixa diskoa atera dute. Urretxu eta Zumarragako trikitilari eta bertsolariek ere egitasmo honetan parte hartu dute.

Ostiraleko bertso saioari dagokionez, 22.00etan hasiko da eta Latxartegi aretoan izango da. Goierriko lau bertsolarik parte hartuko dute: Iñaki Murua, Aitzol Barandiaranek, Iker Zubeldiak eta Aitor Sarriegik. Sarrerak bost euro balio du.

Esan bezala, larunbatean festa izango da Lazkaon. 16.00etatik 18.00etara umeentzako ekitaldiak izango dira: jolasak, puzgarriak, tailerrak eta Takolo pailazoaren emanaldia. 18.00etan Goierriko lau herrikirol talde nor baino nor arituko dira: Idiazabalgoa, Zaldibiakoa, Beasaingoa eta Urretxu-Zumarragako. 19.00etan,

taloak, sagardoa eta trikitixa izango dira. 21.00etan herri afaria hasiko da. Helduen menuak 20 euro balio du eta haurrenak 5. Txartelak **Goierriko Hitzaren** bulegoan daude salgai: Urretxuko Labeaga kaleko 12an (Goierri kirol elkartearen ondoan). Bukatzeko, 23.00etan, **Bizi!** diskoan parte hartu duten bertsolari eta trikitilariak kontzertua eskainiko dute.


Disko hau 16 kantuz osatua dago: batzuk trikitixa pieza hutsak dira eta besteak bertsolarien hitzekin hornituak daude. Urretxu eta Zumarragako hainbat trikitilari parte hartu dute egitasmo honetan: Gari eta Iñaki bikoteak, Elortza anaiek, Edurne Iturbek, Lutxurdio eta Aitziber bikoteak eta Olarte anaiek.

Garikoitz Lizarragak eta Iñaki Larrañagak Goierriko kontuak errepasatu dituzte euren kantuan, Aitor Aiastui dultzaina jotzaile urretxuarraren eta Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolarien laguntzarekin. Elortza anaiek, berriz, kalejira bat gra-

batu dute: Larrosa beltza. Joxe Agustin Elortzak konposatu zuen abestia, Amerikako Estatu Batuetara egindako bidaia batean, eta hitzak Iban Urdangarin bertsolariak jarri dizkio.

Edurne Iturbek Oihana Irastortza lagunarekin grabatu du abestia. **Hitzak** Urretxu eta Zumarragako bertso eskolako ikasleek egin dituzte. Lutxurdio eta Aitziberri dagokienez, trikiti doinu tradizionala grabatu dute: Gelatxo zenaren pieza bat jaso dute. Bukatzeko, Olarte anaiek, Iñaki eta Asier Zunzunegik, eurek moldatutako kalejira jo dute.

Beste trikitilari eta bertsolari ezagun batzuek ere parte hartu dutela esan behar da. Esaterako, Joseba Iparragirre, Xapre, Alaitz Telletxea eta Beloki bertsolariek eta Iñaki Murua, Mikel Mendizabal eta Aitor Sarriegi bertsolariek. Diskoa ere **Hitzaren** Urretxuko egoitzan eskura daiteke. Harpidedunek 10 euro bakarrik ordaindu behar dute bere truke.



Urriak 30 Ostirala
Bertso saioa
Legazpin

22:00etan
 Latxartegi aretoan
 Bertsolariak:

Iñaki Murua
 Aitzol Barandiaran
 Iker Zubeldia
 Aitor Sarriegi

Gai jartzailea:
 Joseba Barandiaran

Sarrera 5€



G+ hogen ta bost
 zatoz gurekin ospatzera



Urriak 31 Larunbata
Jaia Lazkaon

16:00-18:00 umeentzako festa:
 Puzgarriak, tailerrak...
TAKOLO pailazoaren emanaldia

18:00etan, herri kirol norgehiagoka:
 Idiazabal
 Zaldibia
 Beasain
 Zumarraga-Urretxu

19:00etan, Taloak, sagardoa eta trikitixa

21:00etan, HERRI AFARIA
 Helduentzat menua 20€, haurrentzat menua 5€.
 Afarirako txartelak ohiko lekuetan salgai.

23:00etan: BIZI! diskan parte hartu duten bertsolari eta trikitilarien kontzertua

Lazkaoko Udalaren laguntzarekin



G+ hogen ta bost
 zatoz gurekin ospatzera

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduaturako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

BIONA

AROTEGIA
Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ALEX - GIBOLAK

alejandra albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Lanbua

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics
URRETXU

Lurdes Rodriguez Optiko-optometrista
Iparragirre, 1-Urretxu ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9, Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Darmanki Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - **URRETXU**
☎ 943 72 25 13

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria

Otamotz


TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



egurra partitzen

Jon Ormazabal



Mugaz bestaldeko biztanleari

«Akabo!! Maitasun arrazoiengatik traizioa egin duten bi *juntaletras* hauek –aurreko *Egurra partitzeneko* idazleak eta hau guztiaren koordinatzaileak– sektan sartzeko inimiziazio proba bat egin behar izan dute eta *Cuatroko* Manolos horietako baten pare jarri nahi haute, eztabaida antzuetan, eta gainera madrildistak ez direnak bezala, minorian». Horixe izan zuan nire erreakzioa aurreko ale *patriotero* hura esku artean izan nianean.

Dena dela, A gripearekin bezala, zarata asko eta funtsik apenas, Jon adiskidea, hirea makillaje eta justifikazio ekintza bat besterik ez duk izan, Realarekin ezer irabazi ez eta Liverpoolen elastikoa –Xabi Alonsoren aitzakiarekin– janzten duten umeena bezalakoa. Real Madrilekoa ere erosiko al duk? Jakin ezak guk ere bazekiagula urretxuar ilustreak fitxatzen, eh Gerbasio?

Gainera hire soflama eskasa izan huen. “Urretxu askoz herrikoia da, euskaldunagoa”, “senti-

mendua askoz sakonagoa da” edo “San Juanak Santa Isabelen parekoak dira” eta antzeko ergelkeriak bota behar dituk urretxuarren fibra sentisibla biguntzeko eta hori ez duk sinisten. Drag-Queenen bezala desfilatu eta gero gitarra joleari gorazarre egiterakoan ezer berezirik sentitu ez huan bezala. Eredu populistaren bat behar baduk, nik Pablo Mosquera gomendatzen diat, Galiziatik Arabara etorri, lau kantu eta beste bi tontakeriarekin alderdi bat osatu, dirua egin eta etxera buelta egin zuenarena alegia. Gainera siglak ere ondo datorzkik: UA (Urretxuar Alkartasuna).

Polita izan zitekeen arren, hire aukera politikoen aurrean oso ezkorra nauk, azken udal hauteskundeetan parte hartzen ere ez baitziaten utzi. Gainera, ze kristo! aukeran uzten badidak, glamour askoz gutxiago izango duen arren, Urretxun alkate baino, nahiago haut *gure* udalean zinegotzi, hire aita Juananen lan bikaina jarraitzen.

Buzkantza lehiaketara joateko ohiturarik ba al duzu?

Buzkantzak gustatzen al zaizkizu?



Tere Machado



Buzkantza lehiaketara joateko ohitura dugu. Gainera, buz-
kantzak egiteari eta lehiaketari eutsi beharko geniekeela
uste dut. Barazkiarekin egindako odolkiak arrozarekin egin-
dakoak baino gustukoagoak ditut. Beste askori bezala,
Debak egindakoak gustatzen zaizkit gehien.

Silvia Montero



Bai, urtero joaten gara buzkantza lehiaketara. Ekitaldi hori
asko gustatzen zaigu, buzkantza erosteko eta dastatzeko
aukera ematen baitu. Egia esan, era guztietako odolkiak
gustatzen zaizkigu, baina batez ere barazkiarekin egindako-
ak. Javierren harategian erosten ditugu.

Gregorio Molinuelo



Noizbait pasatu izan naiz Zumarragako plazatik egun horre-
tan, baina ez dut buzkantza lehiaketara joateko ohiturarik.
Hala ere, egia da odolkiak jatea gogoko dudala. Arrozarekin
egindakoak atsegin ditut batez ere.

Paki Jimeno



Ez gara buzkantza lehiaketara joaten, asteburuetan familia-
ren baserrira joaten baikara. Dena den, odolkiak jatea gus-
tatzen zaigu. Harakinak gara eta garai batean odolkiak egi-
ten genituen, baina lokalak egokitzea eskatu zuten eta lan
hura utzi genuen. Orain Debak egindakoak saltzen ditugu.

Gaia: Katearen atzaparretan. Hurrengo alerako jarritako gaia: Udazkena.

Doinua: Arratsaldeon eta muxu bat

Gorka Azkarate



Betea uste dugun bizitza,
ene, zeinen den ustela,
egun bat pasa eta segidan
hurrengoa dator bela.
Alde batetik bestera robot
hutsak bagina bezela,
orain haserre, orain irripar,
ta orain malko umela.
Alperrik uste dugu biharra
hobea izango dela,
ez gara ohartzen errutinari
kateaturik gaudela...

Udaberriko giro hezea,
udako zero urdina,
udazkeneko hego haizea,
neguko izotz gordina.
urtaro bati agur esan ta
beste bat dator, jakina;
ta bitartean, hemen gabiltza,
iritsi nahi ta ezina,
mantendu nahian itxaropenak
uzten digun hari fina,
agian noizbait helduko baita
katebegi ezberdina.

Garesti dago alaitasuna,
ta garesti zoriona,
agian kontu zentzugabeez
hausnarketan naiz egona.
Jarraipena da jaio den bertso-
kateari zor zaiona:
udazkenaren argazkia da
ekarri dudana hona,
ondorengoak, arakatuaz
bere barne-mintz sakona,
konta dezala jausi den hosto
batek esaten diona.

iritziz iritzi

Idoia Luzuriaga



Indarkeria sexista saihesteko, prebentzioa

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela ez dago gogoratu beharrik ezta? Egun hori komunikabideen agendetan ondo sartuta dago. Hainbat elkarteratze, manifestu eta bestelako ekitaldi egongo dira. Honen harian Zumarraga eta Urretxuko hamabi urtetik gorako ikasleek, indarkeria sexista saihesteko programa baten bidez, urte osoan zehar prebentzio mailan jasotzen duten heziketa ere hortxe dagoela azalera nahi nuke. Hau da, gai honen inguruan prebentzioa, heziketa eta adin txikikoekin lanean hastea zein garrantzitsua den aditzera eman. Beharrezkoa da adibidez, gazteek, bai neska zein mutilek jakin dezaten indarkeri mota hori ez dela bakarrik ema-

kume bat jipoitzea, askoz harago doala, eta askotan indarkeria ligatzen den momentu bertatik soma daitekeela. Horretan diharduten profesionalen hitzetan, gazteek oso ondo barneratzen dituzte seinale horiek. Orokorrean, ondo dakite bikotekide batek bestearengan gehiegizko kontrola noiz eragiten duen edota *maitasunaren* izenean eroso sentiarazten ez duten zenbait egoera gerta daitezkeela. Eta seinaleak detektatzeaz gain, horiei aurre egiteko mekanismoak lantzen dituzte. Prebentzio lan honetan berdintasunezko baloreak ere lantzen dira. Hainbat profesionalen isileko lana da, baina uste dut fruitua emango duela. Eta emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko moduetan, heziketari so egitea berebiziko pausoa dela.



Corazón de napalm

Clara Usón

Bi narrazio harikaltzen dira liburuan. Bata, 1984. urtean gertatzen da eta protagonista Fede da, 13 urteko gaztetxoa. Fedek zoriontsu izan nahi du, baina bere familiaren egoera ez da egokiena horretarako. Hala eta guztiz ere, Sid Vicious eredu hartuta, bere amaren bila abiatuko da desesperatuki. Bestetik Marta dugu, gaurko margolaria, artegintzako faltsukerien artean mugituko dena eta bere zoriontasuna nekez

bilatuko duena. Oso narrazio bizia, jarraitu beharreko horietakoa. Bere esitiloari esker idazleak tragedia umorez janzten du eta modu berezian sartzen gaitu protagonisten, batez ere, Federen, larruazalean eta inplikarazten gaitu euren gorabeheretan. Itxuraz, bi istorioek ez dute zerikusirik, baina bukaeran biek bat egingo dute ustegabeko amaieran.

Pello Biain

Achtung baby

U2

1990ean Berlinen grabatu zuten eta aurretik egindako ia guztiarekin hautsi zuten irlandarrek. Batetik, teknologia berriei keinu nabarmena egin zitelako eta bestetik, 1990eko hamarkadaren hasieran pil-pilean zeuden soinu alternatiboen iturburuetatik edan zutelako. Baina U2ren esentzia ez zen Berlinera egindako bidean galdu. Ez horixe. Hasiera batean bere zaleek muturra okertu bazuten ere, gero ia denek taldearen diska onena

dela aitortu dute. Hasieratik bukaerara oso ena dela esan daiteke eta baita apurtzaileen ere. Ia 20 urte geroago gaur egun ateratako diskoa dirudi. Nork ez du *One* sekula entzun, edo *Mysterious Ways* dantzatu, esaterako. Baina 12 abestiek dute zer edo zer berezia. Halere aholku bat eman nahi nizueke: ez ezazue *Love is Blindness* en-tzun lur jota zaudeten egun batean.

Igor Susaeta



the Visitor

Connection is everything.



The visitor

Tom McCarthy

Walter Vale (Richard Jenkins) unibertsitateko irakaslea da. Bere emaztea hil zenezetik mamua balitz bezala dabil. Aspaldi bere bokazioa izan zenaren grina galduta, automata hutsa bilakatu da. Egun batean, bere bizitza aseptikoa hankaz gora jartzen da. Konferentzia bat ematera joango da eta, bere apartamentura iristean, norbait lekua bera paperik gabeko bikote inmi-grante bati alokatu diola konturatuko da.

Tarek (Haaz Sleiman) musikaria da: djembe-a jotzen du taberna batean jazz talde batekin. Zairab-ek (Danai Gurira) eskuz eginiko imitaziozko bitxiak saltzen ditu azoka txiki batean. Euren zorigaitzak Walterri bere bizitzaren zentzua aurkitzen lagunduko dio. Pelikula hau Zumarragako Zelai Arizti aretoan eskainiko da ostiral honetan, 22.15ean.

ButaK 21 zineklub taldea



▼
Inguruko ur-jauzietan ateratako argazkiak. Ezkerreko orrialdea: Osinberde (Zaldibia), Aizpurutxo eta Aratz-Erreka (Urrestilla). Eskuinekoa: Urederra, Andoin eta Zerain.
Carlos Mediavilla



Daniel Ibarzabal: etxetik kanpo bidea egin duen zumarragarra

Daniel Ibarzabal zumarragarrak Ekonomia ikasi zuen Estatu Batuetan (EEBB) eta, ondoren, Coca Cola eta Campofrío enpresetan lan egin du. Egun, Grupo Iberoamericano de Fomento konpainiako zuzendarietako bat da. Bizitza erdia baino gehiago darama kanpoan, baina Zumarragarekin harreman estua du eta sarritan etortzen da.

Daniel Ibarzabal, bere bulegoan.



Zumarragar peto-petoa zara.

Hala da. Uztailaren 2an jaio nintzen, Santa Isabel egunean, eta oraindik bertan erroldatua nago. Gauza sinbolikoa den arren, niretzat garrantzitsua da.

Zer esango zenuke zure gurasoek?

Nire gurasoak ere Zumarraga eta Urretxukoak dira. Familia arrunta gara eta harreman estua dugu. Gure gurasoek, Euskal Herriko gainontzeko familia askotan bezala, baloreak transmititzen jakin dute. Besteenganako tolerantzia eta errespetua funtsezkoak direla irakatsi digute. Baita ikasketak eta ondo egindako lana ere oso garrantzitsuak direla.

Zertan lan egiten zuten zure gurasoek?

Aitak bere negozioa izan zuen: Ibargu industria-hornigai konpainia. Ama etxeko-andrea, eta askoz ere gauza gehiago, da. Lau anaia-arreba gara, hiru gizonetako eta emakumezko bat, eta ni bigarrena naiz.

Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa?

Oso haurtzaro ona izen zen eta oroitza-

pen asko ditut. Ez genuen ezer falta izan. Ikastolan eta Garaialde lizeoan ikasi nuen. Garai hartan haurrok kalean denbora asko ematen genuen eta, ikastolako lagunez gain, auzokoak genituen. Futbolearen eta pilotaren jokatzeko genuen, mendira joaten ginen, bizikletan ibiltzen ginen...

Saskibaloia jokalaria izan zinen.

Ikastola utzi ondoren, bakoitzak bere kirola hautatzen zuen eta ni Goierriarekin saskibaloian jokatzeko hasi nintzen. Oroitzapen oso ona dut. Hiru urte haiek oso biziak izan ziren eta talde handi batean jokatzeko zoria izan nuen. Guztiok lagunak ginen. Lehen taldea Hirugarren Mailan zegoen eta beraiekin partida batzuk jokatu nituen: Joxe Murua eta enparauekin.

Saskibaloia zaletua al zara oraindik?

Noski. Baskonia zalea naiz eta Europako eta Estatu Batuetako saskibaloia gertutik jarraitzen ditut.

Dena den, Goierri taldean urte gutxi eman zenituen. Izan ere, oso gaztea zinela, Estatu Batuetara joan zinen.

UBI Estatu Batuetan egin nuen. Ez ninduen inork bultzatu: erabaki pertsonala izan zen. Nerabe ameslaria nintzen eta erakunde batek UBI Estatu Batuetan egiteko aukera eskaini zuen lizeoan. Nire bizitza amesteari utzi eta nire ametsak bizitzen hastea erabaki nuen: Bruce Springsteen-ek, NBA-k, ingelesak, herrialde haren handitasunak... nire arreta pizten zuten eta proba egitea erabaki nuen.

Zenbat denbora egon zinen Estatu Batuetan?

Bost urte eman nituen. Lehenengoan saskibaloian aritu nintzen, baina denboraldia motza zen eta azken hiruhilekoan atletismo taldera pasatu nintzen. Hala, Unibertsitaterako beka eskaini zidaten. Udan Zumarragara itzuli nintzen, Donostian edo Bilbon ikasteko asmoarekin, baina azkenean Estatu Batuetan jarraitzea erabaki nuen. Beste batzuek egindakoaren kontrakoa egin nuen: karerra han egin nuen eta masterra hemen.

Zer ikasi zenuen Unibertsitatean?

Ekonomia. Ez nuen batere argi zer ikasi, baina han dena Bussiness, Economics, Marketing eta Management denez... Estatu Batuetan emandako urteak oso onak izan ziren. Baina, noski, adin horretan edonon egoten da ondo. Lehen bi urteak ikasten eta kirola egiten eman nituen, herrialde ia osoa ezagutzeko aukera izan nuen... Pentsa 80ko hamarkadaren bigarren erdialdeaz ari garela: orduan ez zegoen ez Internetik ezta telefono mugikorrik ere. Abuztuan joaten nintzen eta ekainean itzuli. Urtean bos-

pasei aldiz bakarrik hitz egiten nuen etxe-koekin. Bost urtetan ez nintzen Gabonetan etorri. Hori dela eta, opor horietan lagunekin bidaiatu merkeren bat egiten saiatzen nintzen.

Ez al zitzaizun gogorra egin?

Bai, baina gauza hauek gizakia indartzen dute. Bestalde, une oro babestua sentitu nintzen. Lagun onak nituen, zentratuta nengoen, dena ondo zihoan... Azken seihilekoan nire anaia Javier etorri zen eta horrek gure arteko adiskidetasuna indartzeko balio izan zuen. Oraindik ere, beti hor dago, itzalean. Erabaki garrantzitsu bat hartu aurretik, berari aholku eskatzen diot.

Atletismoa egin zenuela esan duzu.

800, 1.500 eta 4x400 metroko lasterkete-

“Nire taldea Butch

Reynolds munduko erre-

kordun ohiaren

taldearen aurka

lehiatu zen”

tan parte hartzen nuen. Nire taldea Butch Reynolds munduko errekor-dun ohiaren taldearen aurka lehiatu zen.

Zergatik erabaki zenuen Europara itzultzea?

Unibertsitateko azkenaurreko urtean Coca Cola enpresan praktikak egitea eskaini zidaten. Urte guztian etortzerik ez nuen, praktika Espainian egitea eskatu nien. Bi hilabete eman nituen Madrilen eta, ondoren, Estatu Batuetara

itzuli nintzen karrera bukatzera. Oroitzapen ona utzi nuen nonbait, berriro deitu baitzidaten. 1990 langabezia tasa altua zen eta halako lan eskaintza ona izatea pagotxa zen. Etxetik urrun horrenbeste urte eman ondoren, Madrid gertu zegoela iruditzen zitzaidan.

Zer lan egin zuen Coca Colan?

la lan guztia Marketing eta Komertzial departamentuetan lan egin nuen. 90etik 97ra egon nintzen.

Ondoren, Campofrío enpresan lan egin duzu.

1997 urte bukaeran konpainia horretara joan nintzen. Coca Colan gustura nengoen, baina hazten ari zen egitasmoa, soldata hobea, lanpostu garrantzitsuagoa eta talde baten ardura eskaini zizkidaten. Hobetu nahi normala da eta, gustukoa duzun tokia uztea kosta egiten den arren, aurrera egitea erabaki nuen.

Zein izan da zure betebeharrak Campofrío enpresan?

Marketing Manager postuan hasi nintzen. Ondoren, urte luzetan, Marketing zuzendaria izan nintzen. Azkenik, negozio unitate bat zuzendu nuen. Navidul, Revilla eta Oscar Mayer erosi genituen eta hiru negozio unitate eratu genituen. Nik Navidulen ardura nuen.

Grupo Iberoamericano de Fomento (GIF) delakora pasatu zara.

Krisi garaia da eta lanpostu ona altxor da. 41 urterekin, erabakiak ezin ditut arinkiaz hartu. Baina Grupo Iberoamericano de Fomento delakoak niganako interesa azaldu zuen eta egitasmoa erakargarria aurkeztu zidan. Ez dut erosotu eta nagitu nahi. Gaztea naiz eta oraindik ilusioa eta energia ditut. Postu ona nuen arren, erro-riak berriak nahi nituen eta GIF taldera eto-

Daniel Ibarzabal, beheko ilaran erdialdean, gurasoekin eta anaia-arrebekin.



...ri naiz. Madrilgo bulego nagusian lan egiten dut eta Latinoamerikara sarritan joaten naiz, negozio ia guztiak bertan baitaude. Ilusioa berritu dut eta profesional eta pertsona hobea izateko ikasten jarraitzen dut.

Ipurtarina zarela esan al daiteke?

Jakingura dut, baina hankak lurrean mantentzea gustatzen zait. Profesionalek lantzean behin lanpostuz eta enpresaz aldatzea normala da. Nik zazpi urte eman ditut Coca Colan eta ia 12 Campofrío enpresan. Fierro taldean 15 edo 20 urte egotea gustatuko litzaidake. Fidela izan naizela uste dut eta harreman ona dut Coca Colakoekin eta Campofriokoekin. Campofriotik oso modu onean joan naiz eta agur festara mundu ia guztia joan da. Presidentetik hasi eta idazkarietaraino.

Lanean hasi zinenean zenituen ametsak bete dituzula uste al duzu?

Konpainia honetan luzaroan gelditzea adina erronka topatzea espero dut. Ez da

ambizio kontua, baizik eta hobetze eta motibazio kontua.

Madrilen gustura bizi al zara?

Bai. Hiri honek asko eskatzen du, baina aldi berean, asko ematen du. Batzuetan ez da eroso, Europa mailako metropoli handia bilakatzen ari baita. Duela 20 urte lau milioi biztanle zituen eta egun, berriz, ia sei milioi ditu. Hori, mundu osotik etorri diren milioi eta erdi etorkinei esker izan da. Euskaldun asko ere badaude.

Non bizi zara, zehazki?

Madril iparraldean. N-1ean: Zumarragara begira.

Zer esan dezakezu zure familiaz?

Estatu Batuetatik ekarri nuen onena nire emaztea da. Ez da amerikarra, kanariarra baizik. Kirolari handia zen, ni baino askoz ere hobea, eta atletismo pista batean eza-gutu nuen. 800 eta 1.500 metrotan parte hartzen zuen eta Espainiako txapelduna izan zen bitan. Bera kanariarra eta ni eus-

kalduna, Madril gure istorioari aukera bat emateko toki ona zen.

Zertan lan egiten du zure emazteak?

Informatikaria da, baina egun Manuel Padorno kultur elkartean lan egiten du. Padorno bere aita zen: poeta eta margolari handia. XX. mendeko bigarren erdialdeko onenetakoa. Nire emazteak bere amarekin eta bere ahizparekin lan egiten du Madrilgo pabilioi batean: Espacio Manuel Padorno delakoan. Euren helburua artistaren lana zaintzea eta zabaltzea da.

Bi seme-alaba dituzue.

Hala da: Lorea eta Asier. Biak Las Palmasen jaio ziren. Loreak 14 urte ditu dagoeneko eta Asierrek 10.

Lorea atleta handia da.

Amak egindako bidea jarraitzen ari da. Ikasle eta atleta bikaina da: Madrilgo txapelduna, Espainiako txapeldunordea... Asierrek kirol guztiak atsegin ditu, zorionez, baina pixkanaka futbolera jotzen ari da. Ondo jokatzen du, baina oraindik gaztetxoa da.

Madril ez da futbolaria izateko plaza txarra...

Ez da, ez. Realaren elastiko guztiak izan ditu, baina aske hegan egin nahi duen txoria da: Bartzelona taldeko jarraitzailea egin da. Madrilen eta Bartzelona zalea... Berezko izaera duela dirudi eta hori ona da. Dena den, haurrek irabazten edo ondo jokatzen duten taldeak dituzte gustuko. Reala bihotzean darama, baina gero eta gutxiago. Zer egingo diogu ba...

Seme-alabek euskalduntzat al dute euren burua? Aitaren herria maite al dute?

Bai, bai... Asko gustatzen zaie. Sekula ez diogu Zumarragara joateari utzi, beti bai-



Daniel Ibarzabal, zutik erdian, koadrilako lagunekin.

tago arrazoi onen bat: urtebetetzeak, ezkontzak edo bataioak, koadrilako bazkariak, Zumarraga eta Urretxuko jaiak...

Seme-alabek etortzen zaren guztietan laguntzen al dizute?

Gero eta zailagoa da, kirol konpromiso asko baitituzte eta lagunekin ere egon nahi baitute. Familiako bazkariren bat dutenean gustura joaten dira, baina nire konpromisoren bategatik joan beharra gogorragoa egiten zaie.

Zer gehiago diote aitaren herriaz?

Txikia dela eta euri asko egiten duela, baina osaba-izebekin eta lehengusuekin oso ondo pasatzen dute. Asierri mendira joatea gustatzen zaio eta dagoeneko Izazpi, Beloki eta Irimo mendiak eta Zazpi Puntak ezagutzen ditu.

Nola ikusten da Euskadi madriletik?

Euskadi begi onez ikusten dute. Toki guztietan daude intoleranteak, komunikabide batzuek diotena besterik entzun nahi ez dutenak, baina madrildar gehie-

nak irekiak eta tolerantetateak dira. Euskadi Espainiako toki aberatsenetako bat

“Ongizatearen estatuan sinesten dut, noski, baina honen definizioa eta dimentsioa zalantzan jarri behar dira”

bezala ikusten dute. Askok ezagutzen dute, batez ere kostaldea eta hiriburuak. Betiko topikoek ere bizirik diraute: han inon baino hobeto jaten dela, hiri zoragarriak daudela, denetik dagoela, jendea zintzoa eta serioa dela... Nire esperientziaren arabera, Euskadi oso ondo ikusia dago Madrilen. Madril Euskadin baino hobeto, seguru aski.

Egunen batean Zumarragara itzuliko zarela uste al duzu?

Ez dakit. Ez naiz epe luzeko planak egin zalea, baina datozen urteak Madrilen emango ditudala uste dut. Zumarragar peto-petoa sentitzen naiz, baina baita munduko biztanlea ere. Niretzat ez dago muga handirik. Joan naizen tokian gustura egoten eta gozaten saiatu naiz. Norbera non bizi den garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da norekin bizi den. Nire ustez, konbinazio ona lortu dut.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Zaletasun nagusietako bat kirola da. Bizitza osoan lagundu dit. Umetan denera jolasten nuen, gero Goierriekin saskibaloian jokatu nuen, Unibertsitatean atletismoa egin nuen, Madrilen berriro saskibaloian jokatu dut eta egun, oraindik, ahal dudan guztia egiten dut. Kirola ikustea ere atsegin dut. Euskaldunok berezkoa dugu azken hau.

Zure aitagarreba artista zen. Artea ere atsegin al duzu?

Bai, bere eraginari esker gainera. Berarekin egon nintzen 12 urteetan asko irakatsi zidan: pintura, eskultura... Arte modernoari diogun beldurra galtzen lagundu zidan. Arte modernoa kritikoez eta aberatsek bahituta izan da eta gaitzetzeko ez genuela ulertzen esaten genuen. Manuelek mundu horretan sartzen eta nire iritzia eta gustuak lantzen lagundu zidan. Munduko museo garrantzitsuenak bisitatzeko aukera izan dut. Askok irakurri eta ikusi behar da norberaren bidea aurkitu ahal izateko. Ni ere eskuekin gauzak egiten hasi naiz: lehen pausoak buztinarekin eman nituen, ondoren egurra landu nuen eta egun burdinarekin lantxoak egiten ditut. Zumarragari

Daniel Ibarzabalen emaztea eta seme-alabak.



Daniel Ibarzabal, bere anaia-arrebekin.



horren estuki lotuta dagoen burdinarekin, hain zuzen ere. Sutegian lan egiten, soldatzen... ikasten ari naiz.

Zure lana dela eta, festa askotara joatea ere suertatuko zaizu. Madrileko ospetsu guztiak ezagutuko dituzu...

Ez naiz festa askotara joaten, halakoak familiarentzat eta lagunentzat gordetzen ditut. Egia da jende ospetsua ezagutzeko aukera izan dudala: batzuk garrantzitsuak dira eta beste batzuk ez horrenbeste. Benetako artistekin gelditzen naiz eta, batez ere, kirolarekin. Normalean, jende arrunta, gertukoa eta sana da. Beckham, adibidez, tipo bikaina iruditu zitzaidan.

Azkeneko galdera, zure lan jarduera dela eta egin beharrekoa: nola ikusten duzu krisia?

Benetako krisia da. 1993tik 2007ra sekulako hazkundera ezagutu dugu eta hori ezin zen etengabea izan. Hazkunderaren kalitatea ere ez zen ego-kiena. Ez zen sendoa eta jasagarria,

adreiluaren eta Europako dirulaguntzen menpekoa baitzen. Eraikuntzak Barne Produktu Gordinean zuen pisuaren erdia izango du, automobilgintza ahulduta dago eta ezin dugu turismoarekin bakarrik biziraun. Beste sektore batzuk bultzatu behar dira eta errealitate globala kontuan hartu behar da, azaleratzen ari diren herrialde indartsuak zeintzuk diren kontuan izan, gure indarguneetan oinarrituz, berriro hazteari eta lanpostu egonkorak sortzeari ekiteko. Euskadira krisia beranduago heldu da, zorionez, egitura ekonomiko antolatuagoa baitu. Ez du adreiluaren halako mendekotasunik, baina automobilgintzak pisu handia du. Hori dela eta, enpresa txikiak eta ertainak gaizki ari dira pasatzen. Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko tailerak nola dauden begiratzea besterik ez dago. Azken bi hamarkadetan Euskadin gauzak ondo egin dira, baina orain sufritzea tokatzen da. Urte zailak izango

dira, okerragoetatik atera gara eta hau ere gairatuko dugu.

Zer diozu krisiari aurre egiteko hartu diren neurriez?

Ez naiz makroekonomian aditua. Oso zaila da asmatzea: ez dut errezeta edo eredu bakar batean sinesten. Beste eredu batzuk baino lanpostu gutxiago, baina sendoagoak, sortzen dituzten neurrietan sinesten dut. Ongizatearen estatuan sinesten dut, noski, baina honen definizioa eta dimentsioa zalantzan jarri behar direla uste dut. Izan ere, sekula ez dira horrenbeste izan horren eroso bizi izan direnak: beharbada, apur bat gutxiagorekin, guztiok oso ondo bizi gaitezke. Gaizki pasatzen ari direnekin sekula baino solidarioagoa izan behar dela uste dut, baina ez naiz estrategiarik gabe ematearen aldekoa. Eta, batez ere, eman aurretik, banatzeko zenbat dugun kontatu behar da. Nire amak dioen bezala: *quita y no pon, se acaba el montón*.

1950eko hamarkada

Irimoko gurutze zaharra eta egungoa

Ale honetako argazkietan Trini Larreina eta Josetxo Lizarralde bere semea ikus daitezke. Ezkerrekoa Irimoko gurutze zaharraren ondoan atera zuten (egungoa egin baino apur bat lehenago) eta eskuinekoa egungoaren ondoan (egin eta gutxira).



Estitxu Sudupe: "Ez zait lehiakideak iraintzea gustatzen"

Estitxu Sudupe kantari urretxuarra 'ETB1'-eko 'BiGira!' saioko epaimahai kidea da. Sudupek Donostiako Orfeoian abestu zuen eta, ondoren, UGA izen artistikoarekin, euskaraz abestutako 'dance' musikaren erakusle nagusia izan zen. Duela zazpi urtetik hona Donostiako Kursaal en lan egiten du.

Estitxu Sudupe, saioren promozio argazkian.
Argazkia: ETB.



Telebista mundura itzuli zara *BiGira* kantu saioren eskutik.

BiGira! saioko epaimahaiko kide izateko deitu zidatenean, UGAren garaiko oroitzapenak etorri zitzaizkidan burura. Nitaz gogoratu izanak harritu egin ninduen, baina ilusio handia egin zidan. Epaimahairako ezaugarri ezberdinetako jendea behar zutela eta saioa *Oh Happy Day!*-ren antzekoa izango zela esan zidaten. Azken lehiaketa hau ezagutzen nuen eta egitasmoa interesgarria iruditu zitzaidan. Berehala konbentzitu ninduten.

Duela hilabete batzuk Risto Mejidek zeresana eman zuen, abeslariak iraintzen zituelako. Zu ez zara halakoa.

Ez naiz halakoa, ez. Ezin diot kritikatzeari muzin egin, baina dena esan behar da: ona eta txarra. Hobeto daitekeen hori azpimarratu behar da, baina ez zait lehiakideak iraintzea gustatzen. Kritikak konstruktiboak, positiboak eta adeitsuak izan behar dira.

Zer moduz moldatzen zara epaile lanetan?

Epaimahaiko lau kideak toki ezberdine-

tatik gatoz: Oihan Vega DJa eta Gaztea irratiko esataria da, Fran Lasuen Oskorri taldeko biolinista izan zen eta Estitxu Pinatxo Egan eta Iratxo taldeetako kidea izan zen. Ezberdinak gara, baina elkarrekin lan egin dezakegula ikusi dugu. Dena den, ez da batere erraza lehiakideen lana epaitzea. Guztiek oso maila ona dute.

Duela zazpi urtetik hona, Donostiako Kursaal en egiten duzu. Zein da zure betebeharra?

Egun Operazio burua naiz. Eraikineko espazio ezberdinak alokatzen ditugu kongresu eta kontzertuetarako eta ekitaldi horien antolatzaileei behar duten guztia eskaintzen diegu.

Zer ekitaldi izango dira datozen hilabeteetan Kursaal en?

Kontzertuei dagokienez, Joaquin Sabina eta Antonio Orozco izango dira, besteak beste. Musika klasikoa eta baleta ere izango dira, Kursaal Fundazioaren eskutik, eta *Las noches de Paramount Comedy* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da. Azokei

dagokienez, azaroan *Bodas Gipuzkoa* delakoa, Behobia-Donostia lasterketa-ren inguruan antolatutakoa eta gastro-nomikoa izango ditugu.

Nola oroitzen dituzu Kimets abesbatzan eta Donostiako Orfeoian eman zenituen urteak?

Batzuetan monoa sentitzen dudala aitortu behar dut. Lehen pausoak Urretxu eta Zumarragako Kimets abesbatzan eman nituen. Lagun talde bat ginen eta primeran pasatzen genuen. Elkartzeko eta gustatzen zitzaiguna egiteko aitzakia zen. Orfeoiko esperientzia ere zoragarria izan zen. Toki eta obra asko ezagutzeko aukera izan nuen. Gainera, musikari eta zuzendari handie-

“Epaimahaiko kide

izateko deitu

zidatenean, UGAren

garaiko oroitzapenak

etorri zitzaizkidan burura”

kin abestu nuen: Zubin Mehta-rekin, esaterako. Auditorio asko ezagutu nituen eta hori oso ondo etorri zait Kursaaletan lan egiteko. Orfeoia askotan abesten du hemen eta ni auditorio atzean egoten naiz, entzuten. Batzuetan abesten ere hasten naiz!

Orfeoitik pasa ondoren, *dance* musika jorratu zenuen.

Garai hartan, entzuleekin izan nuen harremana bikaina izan zen. Hasieran dena berria zen, ordura arte egin nue-

Estitxu Sudupe, epaimahaiko gainontzeko kideekin eta Itxaso Martin aurkezlearekin. Argazkia: ETB.



narekiko zeharo ezberdina: telebista saioak, kontzertuak... Oso oroitzapen onak ditut, nahiz eta talde batean kantatetik arriskuaren aurrean bakarrik egotera pasatu nintzen. Hasieran urduri jartzen nintzen, baina berehala gairitu nuen. Politena ikusleekin nuen harremana zen, berehala heltzen baitzitzaidan euren erantzuna. Jendea nik idatzitako letrak abesten entzutea oso pozgarria zen.

UGA sekulako fenomeno izan zen. Zitur garai hartako pasadizo asko oroitzen dituzula. Zein hautatuko zenuke?

Pasadizo asko ditut, baina denak onak. Urte haietan denetik pasatu zitzaidan. Lehen kontzertuetako bat Errezilen eskaini nuela oroitzen dut. Afaltzen ari nintzen eta, komunera joateko altxatu nintzenean, jangelan zeudenetako batzuek ezagutu egin ninduten. Builaka hasi ziren, jende asko gerturatu zen eta komunetik ateratzen lagundu behar izan zidaten.

Oraindik ezagutzen al zaituzte kaletik zoazenean?

Batzuetan, bai. Deigarria iruditzen zait jendea oraindik nitaz gogoratzea. Dena den, ez da garai batean bezala: lehen jendeak begiratzen ninduen edo autografoa eskatzeko hurbiltzen zitzaidan.

Garai hartan telebista saioaren bat aurkeztu zenuen.

Hiru saio aurkeztu nituen. Esperientzia laburra izan zen. Telebista programa baten aurkezleak ardura handia du bere gain: erritmoa eramaten jakin behar da, ezin da hitzik gabe gelditu... Lanbide zaila iruditzen zait. Itxaso Martinek lan bikaina egiten du *BiGira!* saioan.

Egun, abesten jarraitzen al duzu?

Ez. Duela zazpi urte utzi nion abesteari, Urretxu eta Zumarragako Kilometroak festako kanta konposatu ondoren. Kursaaletako lanak asko eskatzen du eta ez dut abesteko denborarik. Dena den, nire lanari esker, musikarekin harremanetan jarraitzen dut.

Urolatik Superligara

Urretxun eta Zumarragan ere gero eta gehiago dira futboleko jokatzen duten neskek. Urolak gero eta jokalaririk gehiago ditu eta, hala, ez da harrizkoa euren batzuek talde handiagoetara salto egitea. Irune Amenabarren, Laura Coreraren eta Nerea Gabirondoren kasua da. Aurten Superligako Eibar taldearekin jokatzen ari dira. Lehen biek hitz egiten izan gara.

Irune Amenabar, Nerea Gabirondo eta Laura Corera, Eibarko Unbe zelaian. Argazkia: Josune Zarandona.



Biek 17 urte dituzte eta Batxilergoko 2. maila ikasten ari dira lizeoan. Laura Corera atzelaria da. Beti zentral postuan jokatu du, baina Eibarren batzuetan hegalean jartzen dute. Bere dohain onena indarra dela dio. "Faltak botatzeko orduan indarra dut, baina driblinean ez naiz oso abila. Urolan oso ondo moldatzen nintzen defentsa lanean, baina Eibarren askoz ere zailagoa da". Ez da harrizkoa, oso gaztea baita eta lehen urtea baitu emakumezkoen maila gorenean. Irune Amenabarrek, berriz, zelai erdian jokatzen du. Ezkertia denez, ezkerrean jokatzen du. "Driblina gustuko dut", dio.

Corerak eskola kirolean ezagutu zuen futbola. "Txikitan ez nintzen futbol zalea, baina eskola kirolean gustatu egin zitzaidan. 12 urterekin Urolara joan nintzen. Hasieran, oso txarra nintzen. Seigarren denboraldia dut eta lehen baino askoz ere hobeto moldatzen naiz".

Urolara joateak ilusio handia egin zion. "Eskola kiroleko partidak Argixaon jokatzen genituen eta Urolak neska gaztetxo-

en taldea osatu behar zuela jakin genuen. Urolan jokatzeko sekulakoa iruditzen zitzai-
gun eta izena ematea erabaki genuen. Probaren bat pasa beharko genuela uste
genuen, baina zuzenean hartu gintuzten”,
oroitu du. Amenabar, berriz, betidanik da
futbol zalea. Berak ere, neskak behar
zituztela jakin zuenean joan zen Urolara.
Taldea horian ezagutu zuten elkar. “Adin
berekoak gara eta ikastolan ikasi genuen,
baina gela ezberdinetan. Ez genuen
harremanik Urola hasi ginen arte”, diote.

Eibarrera ere elkarrekin joan dira. Abuztua
amaieran deitu zieten eta sekulako poza
hartu zuten. Ez da harritzekoa,
Debarreneko taldeak Superligan jokatze-
ko aukera eskaini baitie. “Oraindik par-
tidetako azken minutuak bakarrik jokatzen
ditugu. Lau partida jokatu ditugu eta ez
dugu guztietan parte hartu”, azaldu dute.
Urria hasieran Iruñeko Lagunak taldea-
ren aurka jokatu zuten eta hilaren 18an
Realeko neskekin neurtu zituzten inda-
rrak. Partida hartan euren lagunak eta
ikaskideen animuak jaso zituzten.
Azaroaren 1ean, berriz, Athletic-en aurka
jokatuko dute Eibarko Unbe zelaian.

Gipuzkoa mailako lehiaketatik Estatu mai-
lakora pasa dira eta, noski, saltoa nabari-
tu dute. “Aldaketa nabarmena izan da,
baita entrenamenduetan ere. Lehen baino
askoz ere gehiago eskatzen digute.
Astean lau entrenamendu ditugu eta guz-
tietan alderdi fisikoa ere lantzen dugu:
ordubete ematen dugu prestatzaile fisiko-
arekin eta beste ordubete entrenatzaile-
arekin. Urolako entrenamenduak ezberdi-
nak ziren. Hiru entrenamendu genituen:
bat fisikoa eta beste biak baloiarekin”.

Partidetan ere saltoa nabaritu dute:
Urolan taldeko onenetakoak ziren eta

Eibarren, berriz, guztiek dute euren maila.
“Apu bat galduta gaude oraindik.
Gainera, gehientsuenak gu baino zaha-
rragoak dira”, aipatu dute.

Dena den, lasai egoteko moduan dira.
Izan ere, aurten ez da talderik jaitsiko
Superligatik. “Eibarrek aurten du lehen
urtea Superligan eta epe luzeko egitas-
moa da. Superligak Eibarren aldeko apus-
tua egin du eta denbora eman dio egitas-
moa finkatzeko”.

Eibarrek, berriz, jokalarik gazteen aldeko
apustua egin du. Amenabarrek eta
Corerak denboraldi baterako fitxatu dute
eta eskatu dieten gauza bakarra ikastea
da. Izan ere, oraindik asko hobetzeko tar-

Asteburu honetan

Bilboko Athletic

taldearen aurka

jokatuko dute Eibarko

Unbe futbol zelaian


tea dute. “Zaharrek indar gehiago dute eta
fisikoki hobeto dabilta. Izan ere, gu orain
hasi gara Eibarren. Eurek, berriz, aurre-
denboraldia egiteko aukera izan zuten.
Entrenatzaileak lasai egoteko esan digu”.
Ez dute urduritzeko arrazoirik, denboraldia
hasi besterik ez baita egin. Oraindik lehen
itzuliko azken partida eta bigarren itzuli
osoa dute euren onena erakusteko. Euren
multzoan, aipatutako hiru taldeez gain,
Real Valladolid, Oviedo Moderno,
Zaragozako Transportes Alcaine eta Las
Palmas taldeek jokatzen dute.

Astean lautan Eibarrera joatea eta etxera
22.30ean itzultzea gogorra bada, autobu-
sean Valladolidera edo Oviedora joatea
zer esanik ez. Dena den, gazteak dira eta
ilusioz gainezka daude. Hala, azaroa
amaiera heltzeko irrikitan dira. Izan ere,
azaroko azken egunetan Kanariar Irletara
joango dira, Las Palmasen aurka jokatze-
ra. Ez dute nekerik somatzen. “Astea
azkar pasatzen da”, diote baikortasunez.

Gaztetetasunak eta ilusioak bultzatuta,
luzaroan futboleko jokatzen jarraitzeko
asmoa dute. Dena den, neskentzat ez da
batere erraza gaztetako grinari eustea.
Izan ere, nahiz taldeek dirulaguntzak
ematen dizkieten, euren soldadak ez dira
inondik inora ere gizonetzkoen parekoak.
Hala, neska askok nahi baino lehenago
utzi behar dute futbola. Nerea Gabirondo
urretxuarra, adibidez, Amenabar eta
Corerarekin batera hasi zen Eibarren;
baina dagoeneko taldea uzteko asmoa
erakutsi du. “Taldea uzteko asmoa zuen,
baina jarraitzeko eskatu zioten eta orain
ostiraletan bakarrik joaten da entrenatze-
ra”, azaldu dute bi neskek.

Gabirondok Unibertsitate ikasketak eta
futbola uztartzeko zailtasunak ditu, baina
Amenabarrek eta Corerak lortu ahal iza-
tea espero dute. “Hemen inguruan ikaste-
ko asmoa dugu eta eskolak goizez izatea
gustatuko litzaiguke”, azaldu dute.

Eskatzen hasita, Amenabarri egunen
batean Bartzelonan jokatzeko gustatuko li-
tzaiok. Izan ere, hori du bere talde kuttu-
na. Jokalarik gustukoena, berriz, Messi du.
Corera, berriz, Real zalea da. Dena den,
bai bata eta bai bestea oso gustura daude
Eibarren. “Superligan gaude eta hona iris-
te hutsa sekulakoa da. Ea luzaroan jarrai-
tzerik dugun”, amaitu dute.



Alex Areizaga

Informatika

Netbook-a

Ideien eskasia krisiarekin parekatu dezakedan honetan, pozik hartu dut osaba oporretatik itzuli izana. Netbook-ak egun modan jartzen ari diren ordenagailu txikiak dira. Hasiere batean OLPC (One Laptop Per Child) lelopeko kanpaina batean ikusi zuten argia, herrialde pobreenetako ikastetxeetara ordenagailuak eramateko asmoz. Lan errazak egiteko balio dute eta oro har kalkulu orriak, testu prozesatzaileak eta Internet nabigatzaileak dituzte. Hala ere, elkartasun ekintza gisa sortu zena, ordenagailuen merkatuaren berpizkunde batean bihurtu zen, mundu guztiak nahi baitzuen bat. Aitzindariak Asus enpresakoak izan ziren, *eeePC* famatuarekin eta gainontzeko enpresek ere azkar jarraitu zioten bide honi, azkar batean 300 euroren truke hauetako gailu bat eskuratzeko aukera izanik. Eskaintzen dituzten aukerak zabalduz doaz, nahiz eta oraindik ere ez duten balio bideoak sortu edota pisu handiko lanak burutzeko.



Izaro Soraluze

Osasuna

Merkuriozko termometroak

Joan den apiriletik aurrera, merkuriozko termometroak ekoiztea eta saltzea debekatuta dago. Merkurioak ingurunea kutsatzen du eta elikadura-katera oso erraz iristen da. Dosi txikietan metal honek gizakiaren nerbio sistemari eragin diezaioke, dosi handietan, berriz, organismoarentzat oso kaltegarria izan daiteke. Ez da degradatzen eta oso erraz zabaltzen da. Hori dela eta, merkurioak kutsadura oso azkar eragiten du. Etxean termometro hauetako bat badugu, ez bota, erabiltzen jarraitu baitezakegu. Baina bota behar dugunean zaborretara ez botatzea, eta Garbigunera eramatea gomendatzen da. Betiko termometro hauek, termometro digitalez edo galiozko termometroez ordezkatzeko ditugu. Emaizta bera eskainiko digute, gorputzeko tenperatura neurtu eta sukarrak dugun ikusteko. Galiozko termometroek merkuriozkoen egitura dute, baina borneyan galioa daramate, kutsakorra ez den metala hain zuzen ere. Merkuriozkoak bezain fidagarriak direla esan dezakegu. Digitalak, berriz, azkarragoak eta erosoagoak dira.

Gizonak

Etxean egun normala da. Etxeratuta daude denak: ikastolatik bata, liburutegitik bestea... Astelehena da. Astelehenetan ia dena falta izaten da: animua, esnea, dilistak, komuneko papera, txokolatea, kandelak... Enkarguak oraindik egiteko daude. Gurpildun karrotxo trastelekutik ateratzen ari da: neska bat ari da hari tiraka. Entrenatzera joateko motxila bat eta motxilakoak airean dabilta, haien atzetik korrika beste neska bat: beroketa egiten. Beraz, etxeratutako direnetako bi kalera joatekoak dira.

Lisaburdina piztuta dago, lurrina dariola. Lisatzeko ohola alkandora zuria jantzita. Enkarguak egitera joango denari begira, "bainuko falta da", esan du entrenatzera joatekoa denak. Bide batez, kamiseta lisatu berri bat hartu du arropadorre txukun batetik. Lisatzen jarraituko duenari begiratu dio, eskerrak emateko.

Txirrina entzun da. Isiltasuna areagotu. Egun normal bateko denbora geratu egin da. Arropa lisatzen ari zenak lisatzeari utzi dio. Kaleratzeko zirenek planak atzeratu dituzte: mandatuak egiteko gurpildun karroa eta entrenamenduko motxila hallean aparkatuta daude. Burdinaren beroa eskuetan daramanak eztula egin du. Sarrerako argia piztu da. Baina planak atzeratu dituztenek egun normal batean baino gehiago itxaron behar izan dute. Eta ondoren ere, minutu luze batean ez da aterik zabaldu.

Gizon bat dago atearen bestaldean, trajez jantzita. Kaxa bat dakar eskuartean. Ez da egunerokoaren parte. Harridura sortu dio lisaburdina piztuta utzi duenari. Aparkatuta zeuden lau begiek sumatu dute harridura hori. Haiek ere zabaldu egin dira. Mutututako bi aho eta ezpain bi estutu egin dira. Lau sorbalda lepora igo. Astelehena da: ia denaren faltan daude. Eta hala ere, bitartean, gizonak geldi-geldi jarraitzen du atearen beste aldean.

Bigarren txirrin-hotsa entzun da. Atea ireki eta isiltasuna hautsi beharrean dago. Momentua berezia dela ulertuta, hitzik gabe, kalera irteteko zirenak sukaldean sartu dira. –Arratsalde on! -eta segidan, arnasa hartzeko betarik gabe-

Zuek ez nauzue ni ezagutzen, baina nik asko entzun izan dut zuei buruz.

Harridura begirada zintzilik geratu zaio lisatzen ari zenari.

–Bide batez, nire dolumina zuei azaltzera ere banator.

Begiak lausotu zaizkie bie.

–Zure senar zena lanetik ezagutzen nuen -isiltasuna bueltatu da elkarriketara. Solaskidearen begietan du gizonak arreta. Segi dezakeela esaten diote-. Nire enpresa bere enpresaren hornitzaile zen; hau da, haiek gure bezero. Gizon jatorra. Hurbila tratuan. Gertatzen da, ba... batzuetan, zergatik jakin gabe... Harremana lanetik haratago joan zela. Alegia, eskabidea egiteko deitzen zidanean, gu eta familiaz hitz egiteko ere tartetxoa hartzen genuen.

Entrenatzera eta enkarguak egitera joatekoak zirenek hallean aparkatutako gurpildun karroan eta entrenatzeko motxilan sartuta egotea eskertuko lukete. Astelehen normal hau ez da horren ohikoa txirrina entzun dutenetik.

–Asko hitz egiten zuen zuoi hiruroi buruz. Beti ondo. Goxotasun handiz. Miresmenez...

Lisatzen ari zenaren eskuetako lurrinak euria ekarri dio begietara.

–Ikaragarri maite zintuzten; hirurok. Hainbestearino, zuok ezagutzeko eta agurtzeko beharra sentitu dudala. Horretaraxe etorri naiz. Hain maitagarriak zineten zure senarraren hitzetan...

Ezin izan du jarduna luzatu. Eskuin eskua luzatu dio denboratxo batean lisatzen jarraitu ahal izango ez duenari. Leonidas: bonboiak jarri dizkio eskuartean. Ezker eskuarekin ezker masaila laztandu dio. Malkoak lisatu dizkio.

Etxeko atea itxi da. Bestaldeko gizonak txirrinari beharrean atariko argia pizteko etengailuari eman dio. Ezohiko astelehen honetan ataritik irtengo den azken pertsona da. Danba! Irten da. Mandatuek itxoin ahalko dute. Entrenamendu bat galtzeagatik ez da ezer gertatuko. Bihotzeko zimurren ordua da.

Amaia Artolazabal Amilleta

Alfonso Arratibel

Alfonso Arratibel Ezkioko Santa Lutzi auzoan jaio zen, baina Gabirian, Urretxun, Donostian eta Zumarragan ere bizi izan da. 14 urterekin harakin izatea erabaki zuen eta Candido Mendizabalekin eta Donostiako harategi batean ikasi zuen ofizioa. Aitagarreba harakina zuen eta ezkondu zenean haren harategia hartu zuen. Bere odolkiek eta buzkantzek sekulako ospea hartu zuten eta, duela 10 urte erretiratu zen arren, asko dira oraindik garai honetan berataz gogoratzen direnak. Aurten ere buzkantza lehiaketako epaimahaikide izango da.

Zer izan nahi zenuen umetan?

14 urte bete nituenerako banekien harakina izango nintzela. Zortea izan nuen: berehala lana aurkitu nuen eta gustura aritu nintzen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira eta perretxiku bila joatea gustatzen zait.

Bizitzeko toki bat?

Bizi izan naizen toki guztietan gustura egon naiz.

Gustuko mendia?

Belokira, Izazpira eta Irimora joaten naiz gehienbat. Batzuetan, Urbiara ere bai. Perretxiku bila, berriz, Otzaurtera joaten naiz.

Gustuko perretxikua?

Ondoa.

Gustuko haragia?

Txahal emearena.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Niretzat morena hartu nuen eta morenak gustatzen zaizkidala esan beharko dut...

Egindako azken oparia?

Ez dut gogoratzen. Opariak emaztearekin batera egiten ditut. Diru kontuez emaztea arduratzen da. Emakumeak administratzaile onak dira.

Eta jasotakoa?

Seme-alabek egindakoak: batek betaurrekoak, besteak erlojua...

Data bat?

Ezkondu gineneko eguna: San Isidro eguna. Bestelakoan, Santa Isabel eta Santa Lutzia egunak ere oso gogoko ditut.



Neska eta mutil izen bana?

Hiru alaba ditudanez, emaztearena esango dut: Maria. Mutil izenei dagokienez, semeenak: Javier eta Anton.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Hitza eta *El Diario Vasco*.

Gustuko telebista saioa?

ETB ikusten dut gehienbat. Pilota partidak, *Kalaka*, *Mihiluze...*

Bereziki gorroto duzuna?

Salsa Rosa eta halakoez gain *Goenkale*.

Liburu bat?

Dagoeneko ez dut liburirik irakurtzen: nekatu egiten bainau eta lo hartzen baitut.

Pelikula bat?

Ez ditut pelikula asko ikusten. *ETB2n* arratsaldeetan botatzen dituztenak bakarrik.

Abesti bat?

Kantua asko gustatu zait beti. Mikel Laboa oso gustuko dut.

Soinu bat?

Etxean musikariak ditut eta kontzertuetara ere joaten naiz. Soinuak? Pianoarena, organoarena, soinuarena, txistuarena, flautarena...

Usain bat?

Kafearena. Edateko ere asko gustatzen zait.

Janari bat?

Babarrunak, txuleta, arraina...

Ura ala...

Ardoa. Ardoarekin jan dut beti.

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan
6 chalet adosaturen eraikuntza eta salmenta

Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak